

Deriba: Olarrain, Aldaba-txiki, Auzotxikia eta Urkizu

Data: 2025/07/15

Partaideak: 10 lagun, 3 emakume / 7 gizon

Teknikariak/Zinegotziak: Gari, Xabi, Josune, Aitor, Xabi

Deribarako hasieran diseinatutako ruta:



Bidegurutzea

1. Biribilgune bat planteatu zen baina ez da ezer egin oraindik. Kamioi pisutsuak pasatzen dira eta bidegurutzean askotan sustoak egon izan dira.

1,2,3



2. Bidegurutzean dagoen Oteizaren eskultura ere babestu eta goratzeko eskatera egiten da.



3. Tolosarako sarrera, ubidearen ondoan, dagoen terrenoa pribatua da. Aldundiari eskaera egin zitzaion, baina ezerezean gelditu zen.
4. Espaloi falta dago bidegurutzetik sarrerarako bide osoan zehar. Aparkalekua ere utzita dago eta bidegorri falta dagoela ere azpimarratzen dute.

Auzo-txikia

Bidegurutzea

1. Menditik jaisten den urak bidegurutzea urpetzen du. Arketa bat eskatua dago —zinegotziak dioenez—eta jartzeko asmotan dira.

	
--	--

Urkizu

Iturria 1. Ur depositoa ez da hermetikoa eta ez dago auzo-elkartera iristeko hainako azpiegitura. Lehen eskolarena zen eta orain elkartearemtzat erabiltzen da Udalarena den depositoa. Goian (mendian) beste deposito bat badagoela diote, baina hori pribatua dela. 	8
Bolatokia 1. Bolatokia eraberritzeko eskaera egiten da. Zaindu beharra dagoela azpimarratzen dute eta egur berriak eta hondarra jarri behar dela. 2. 2003an egin zen azkeneko mantenuan, eta terrenoa pribatua denez, eskaera egin beharko litzateke berriro.	9



Aparkalekua

1. Ez dago seinalizatua eta kanpotik datozenek edozein lekutan aparkatzen dute. Lurreko marrak hobeto zehaztea proposatzen da.



10

Auzo-elkarte ondoko terrenoa

1. Aparkalekuaren ondoan dagoen errenoaren inguruko azalpoena ematen da. Bertan 24 etxebizitza egitekoak ziren eta horregatik egin zen gaur egun auzo-elkartea dagoen lekuan.
2. Terrenoa rustikoa izatetik urbanizable izatera pasa zen, baina etxebizitzak egiten ez zirela ikusita —eta mantentzea duen kostuak medio—, rustikora bueltatu zen. Hor etxebizitzak egin daitezkeela diote baina ez dago plan konkreturik. Irudian gorrian markatzen den terrenoa.

11

